

## **MANIFIESTUA**

### **Poesia krisi garaian**

**Donostia, 2010/06/14**

Aritz Gorrotxategi, Felipe Juaristi, Juan Ramón Makuso, Pello Otxoteko

Krisi garaian gaude; baina krisia da gizakiaren egoera eta izate etengabekoa. Krisi ekonomikoa dago, eta krisi politikoa ere bai. Humanismoaren ideia ere krisian da eta horrek mendebalde osoa utzi du larrua agerian. Hannah Arendt kulturaren krisia adierazteko tradizioaren galera aipatu zuen. Iraganarekin zerikusia duen ororekiko harremana da krisian dagoena. Ez gara gauza iragana ulertu eta gurera ekartzeko eta, horregatik, saiatzen gara haren orrialdeak irakurtzen eta gerora begira mezuak bidaltzen, naufrago baten botilak balira bezala. Krisi guztiek, halabeharrez, legitimitate-krisia ekarri dute. Azken krisi horren ondorioa da bazter guztiak hartuta dauzkan desilusia edo, beste izenez, *postmodernitatea*.

Historiarik gabe ez dago iraganik. Dena bihurtzen da oraineko. Errealitatea bera ere simulakro hutsa da. *Postmodernitateak* oso arin ezabatu ditu bere aztarnak; eta bera bere buruaren atzetik dabil etengabe, nerabea balitz bezala. Esparru sinbolikoak errealitatearen ordezkotza eskatu du, eta lortu. Ezer ez da dirudiena; eta dirudiena badena baino gehiago da. Egia moztorropoan ezkututzen da eta gezurra aurpegi huts dabil; baina inork ez du ezagutzen, eta nahasmendu horretan ateratzen da garaile. Ordenadore batek, alegia irudimenezko egiak, narrazio berria sor dezake. Eta narrazio berria historia ordezkatzera etorri da; eta narrazio berriaren gainean beste narrazioa eraikiko da eta, hura ere, ordezkatu duen narrazioren lurraldetik urrunduko da eta desagertuko.

Poesia beti egon eta egin da krisian. Hobeto esanda, krisia da poesiaren egoera naturala. Bi galdera oinarrizkori erantzun ezak taxutu du bere nortasuna. “Zertarako poesia Jainkoa hil ondoren?”, da bata. “Zertarako poetak Auschwitz gertatu eta gero?”, da bigarrena. Baina erantzunik ez dago.

Aldatu da gizakiaren tokia munduan. Konturatzeke, bere azpian zegoen lurra mugitu egin da, edo mugiarazi egin diote, eta galdurik geratu da, babesik gabe sentitzen da, irudiz inguraturik. Irudia da saltzen duena; ez errealitateari lotuta dagoen produktua. Dirua ere metafora polita da. Ez dagoena erakusten du. Ikusten ez dena da ikusten denaren ordezkari, eta horregatik ikusten dena ere ez baztertu, zokoratu eta galdu egin da gure mundua bihurtzen ari den desertuan barrena.

Poesiak, ordea, abantaila hartua du mundu honetan. Ikusten ez den orotaz osaturik baitago; eta hura ere ikusgarri egiten du.

## MANIFIESTO

### Poesía en tiempos de crisis

Donostia, 2010/06/14

Aritz Gorrotxategi, Felipe Juaristi, Juan Ramón Makuso, Pello Otxoteko

Vivimos tiempos convulsos y críticos; pero crisis es, respecto al ser humano, su eterna situación y estado. Existe la crisis económica, y también la crisis política. La idea de humanismo está en crisis, y ello ha dejado a todo el occidente con las vergüenzas a la vista. Hannah Arendt hablaba de la crisis de la cultura y para ello citaba la pérdida de la tradición. Está en crisis todo lo relacionado con nuestro pasado. No somos capaces de entenderlo y de atraerlo y, por ello, nos esforzamos en leer las páginas pretéritas y enviar hacia el futuro mensajes, como fuesen botellas de naufrago. Todas las crisis han traído consigo la crisis de la legitimidad. Consecuencia de la misma es esta desilusión que ha ocupado todos los lugares. Su otro nombre es *postmodernidad*.

No hay pasado sin historia. Y todo se vuelve presente. La realidad misma se ha convertido en un simulacro de incalculables dimensiones. La *postmodernidad* ha borrado, con presteza, sus propias huellas y anda tras sus pasos, como un adolescente excitado. El terreno simbólico ha exigido el lugar de lo real, y se ha apropiado del mismo. Nada es lo que parece; y lo que parece es mucho más de lo que es. La verdad se ha enmascarado y la mentira anda con el rostro desnudo; pero nadie lo reconoce, y de esa confusión saca provecho. Un ordenador, verdad imaginada, puede crear una nueva narración. Y esta nueva narración sustituirá a la historia; y sobre ella se creará otra narración, y aquella también se alejará del lugar en el que ha sustituido a la anterior y desaparecerá.

La poesía siempre ha estado en crisis. Mejor dicho, crisis es la situación natural de la poesía. La incapacidad de responder a dos

preguntas fundamentales ha moldeado su condición: “¿Para qué poesía, si Dios ha muerto?”. “¿Para qué poetas, después de Auschwitz?”.

Ha cambiado el lugar del ser humano en el mundo. Sin darse cuenta, se ha movido la tierra a sus pies, o se la han movido, y se ha quedado perdido, sin protección, rodeado de imágenes. La imagen es lo que vende; no el producto ligado a la realidad. La del dinero es una buena metáfora servil, y que sirve. Lo invisible sucede a lo visible; y por ello se ha arrinconado lo real y se ha perdido en ese desierto en el que se está convirtiendo nuestro mundo.

La poesía, sin embargo, ha adquirido ventaja. Está repleta de todo lo que es invisible; y todo lo convierte en visible, en real.